



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FARMAZIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE FARMACIA

ANALISI FORENTSEA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Erakunde juridiko eta legalak etengabe ari dira adituen txosten forentsea zehazten duten ebidentzia guztiak zalantzarik gabe bereizi ahal izateko metodo analitiko fidagarriak eskatzen, halaber, inguru juridikoetan kualifikazio handiko langileen kopurua zabaltzeko aldarrikatzen dute, eta analisi forentsearen arloko diziplina anitzetan prestakuntza duten profesionalen eta ikertzaileen beharra nabarmentzen dute.

Analisi Forentsea Unibertsitate Masterraren xede nagusia ikasleei ebidentzia forentseak bilatzearen oinarri diren zientzia eta teknikei buruzko

ezagutza orokorra ematea da. Hona hemen, besteak beste, programaren berariazko helburu aipagarriak: gaitasunak garatzea honako alderdi hauekin lotutako ezagutzen bidez: zientzia forentsearen hedapena eta historia, metodo zientifikoa, iraganeko gertaeren berreraiketa, ebidentzien eta frogen lege-kontzeptuak, ebidentziak biltzea eta jagotea, zaintza-katea, ebidentzia bakarra ziurtatzen duten oinarri kimikoak, fisikoak, biologikoak eta antropogenetikoak, ebidentziak interpretatzeko irizpide profesionalak eta etikoak eta emaitzen kalitatea.

IRTEERA PROFESIONALAK

Laborategi forentseak, museistikako laborategiak, teknika analitiko aurreratuak, analisi genetikoetarako laborategiak, biokimika klinikoko laborategiak, toxikologiako institutuak, kirol-dopineko laborategi onetsiak, ingurumen toxikologiako laborategiak. Polizia zientifikoa, estatuko segurtasun indar eta gorputzak, polizia autonomikoak, udaltzaingoak, espetxeak, justizia administrazioa, abokatuen bulegoetan eta

ikerketa pribatuko taldeetan laguntza-lanetan aritzea, segurtasun pribatua, eta abar.

Ikerketaren arloan, Masterrak Analisi Forentseko doktoretza programan sartzeko bidea ematen du, MEC-eko bikaintasuneranzko aipamenarekin eta ikerkuntzako karrera hasteko aukera ematen du, programaren euskarri diren ikerkuntza-lerroetako batean.

SARBIDEA

Lehentasuna izango dute honako gradu edo lizentzia dutenak: Kimika, Farmazia, Biologia, Biokimika, Fisika, Ingurumen Zientziak, Elikagaien Zientzia eta

Teknologia, Kriminologia edo Medikuntza. Batzorde Akademikoak baimendu dezake beste titulu batzuekin edo baliokideekin sartzea.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz) Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa) Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología (Donostia).
Irakaskuntza mota:	Eskolan bertakoa.
Hizkuntza:	Gaztelania (zenbait irakasgaireren kreditu ingelesez izango dira eta irakasle bisitariak emango dituzte).
Gutxi gorabeherako prezioa:	2.150-2.350 euro.
Egutegia:	Urritik irailera.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

<u>Nahitaezko Gaiak</u> 13,5 ECTS kreditu	<u>Hautazko Gaiak</u> 26,5 ECTS kreditu	<u>Proiektuak / Ikerketa-lanak</u> 20 ECTS kreditu	<u>Guztira</u> 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Kirol dopajea.
- Análisi forentserako karakterizazio-metodo kristalografikoak.
- Genetika forentserako sarrera.
- Entomologia forentserako sarrera.

Hautazkoak:

- Droga eta farmakoen erabilera eta gehigikeria.
- Su-armen tiroen, lehergailuen eta suten hondarrak.
- Pigmentuak eta tintak.
- Análisi forentserako konposatu organikoen egitur zehaztapena (EMN).
- Ingurumen-toxikologia forentsea.
- Laboratorio forentseen kreditazioa.
- Mikroskopia elektroniko forentsea.
- Eremu profesionalari aplikaturiko genetika forentsea.
- Genetika forentserako ikerkuntza.
- Genetika forentserako ikerkuntza.
- Entomologia forentserako ikasketa-teknikoak.
- Entomologia forentsea II.

Master amaierako lana (20 kreditu, 500 ordu laboratorioro).

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Ramón J. Barrio

Tel: 945013055

Posta elektronikoa:

r.barrio@ehu.eus

